

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko pisuak alokatzen dituzten agentzia batekin jarriko gara harremanetan beraien laguntza edukitzeko. Etxarre izango da gure funtsezko elkarte hori. Agentzia honen bitartez, gure pisuak alokatzeko aukerak emango dizkie eta behin alkokatzea erabakitzen dutenean, diruaren portzantai bat ematea onena dela erabaki dugu.



Hasiera batean, oso ezaguna den Uggasa enpresarekin kontaktuan jartzea ere pentsatu genuen lana egiteko toki konkretu bat edukitzearren, baina azkenean ez alokatzea pentsatu dugu. Izan ere, aplikazioa sortzeko eta aurrera ateratzeko ez dugu inongo lokalik behar, etxetik egitea posible delako. Gainera, honetarako ez dugu materialik behar, beraz etxean ditugun ordenagailuz besterik ez gara baliatuko, eta merkeago aterako zaigulako. Horrela, diru horrekin beste gauza batzuetan inbertitzea hobe delakoan gaude.

Bestalde, elkarte batzuen laguntza ez litzaiguke batere gaizki etorriko. Gure aplikazioa, *elkartu*, berria denez, ez du inork ezagutzen. Hortaz, herriko ikastetxeetan, liburategietan, kaleetan, taberneetan,... aplikazioari buruzko informazioa duten posterrak jartzen saiatuko gara.



Zergatik leku hauetan? Pentsatzen ibilli eta gero, gure bezero gehienak 17-25 urte bitartekoak direla uste dugunez, hauek zein tokietan pentsatzen aritu ginen, batez ere ikasleak. Haatik, lehen aipatutako lekuetan jartzea ideia onena dela iruditu zaigu batez ere arrazoi honegatik.

Honez gain, Diario Vasco aldizkarian gure publizitatea jartzea ere erabaki dugu, jende gehiagok ikus dezan. Beraz, hau guztiarekin jendeak gure aplikazioa ikus dezan espero dugu.